



GABONETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Debako Udalak gabon hauetarako herriko merkataria eta ostalaria erakuslehoak apaintzera animatu nahi ditu "Gabonetako Erakusleho Lehiaketa" baten bidez.

LEHIAKETAREN OINARRIAK:

LEHENENGOA.

Debako merkataria eta ostalaria guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.

BIGARRENA.

Helburuak:

- Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea. Gabon garaian herrian kontsumoa eta erosketak bultzatzea.
- Salmenta puntuen garrantzia herriko kaleak bizirik mantentzeko balioan jartzea.
- Ikusgarritasuna eta erakargarritasuna handitzea. Salmenta puntuak ikusgarriagoak egitea eta bezeroak erakartzea.
- Sormena sustatzea. Ahalegina, originaltasuna eta erakuslehoetako kalitate artistikoa saritzea.
- Herriaren irudia hobetzea. Kaleak edertzea herriaren irudi orokorra hobetzeko.
- Komunitatearekin konektatzea. Tokiko salmenta puntuen eta herritarren arteko lotura sendotzea.

HIRUGARRENA.

Izen-ematea doakoa da eta 2025eko abenduaren 1etik 23ra izango da. Eskabideak bi bidetatik onartuko dira:

1. Online, inprimaki bat betez (<https://labur.eus/erakusleholehiaketa>)
2. Turismo Bulegora joanez (10:00etatik 14:00etara) edo 943192452 telefonora deituz.

Turismo bulegoan izena ematean, honako hau adierazi beharko da:

1. Izen-abizenak.
2. Inskribatu nahi den salmenta puntuaren izena eta helbidea.
3. Harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa.
4. turismoa@deba.eus helbidera bidali beharko dira egindako dekorazioaren argazkiak.



LAUGARRENA.

2025/2026 GABONETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETA honetako saridunak hautatzeko epaimahaiak honako puntu hauek baloratuko ditu funtsean:

- Diseinua eta originaltasuna
- Erakargarritasuna
- Birziklatutako elementuak erabiltzea
- Gabon garaia izanik, ohiturekin eta tradizioekin lotutako gaiak izatea
- Tokiko kontsumoaren eta herriarekiko harrotasunaren manifestua

Erakusleihoetan jarritako mezuak euskaraz egon beharko dute; euskaraz eta gaztelaniaz edo beste hizkuntza batzuetan jarritz gero, euskara lehenetsiko da.

Epaimahaia 2026ko urtarrilaren 2an bilduko da udaletxean, parte hartze aldian zehar erakusleihoak bisitatu ondoren eta jasotako argazkiak gogoan izan ondoren. Une horretan erabakiko dira irabazleak, eta 2026ko urtarrilaren 3an emango da erabakiaren berri, Urte Berriko azokako sariekin batera.

BOSGARRENA.

Epaimahaiak bi sari emango ditu: lehenengoa, BARE bonua Hiru Uhinak hotelean; eta bigarren saria, 200 euroko bazkari-bonua Urgain jatetxean. (Bonuak 2026. urtean zehar kontsumitu beharko dira).

SEIGARRENA.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta tokiko komunikabideetan argitaratuko da. Gainera, irabazleei telefonoz jakinaraziko zaie.

Sariak emateko ekitaldia 2026ko urtarrilaren 3an egingo da, Urte Berriko azokako sariekin batera.

ZAZPIGARRENA.

Izena emate hutsak esan nahi du parte-hartzaileek 2025/26 GABONETAKO ERAKUSLEIHO LEHIAKETAKO oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzen dituztela.

Ekintza finantzatzeko kreditua 2025 ekitaldiko aurrekontuetako partidatik aterako da: 1100.226.241.00.06 2025 (2734).